

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

5878

EBAZPENA, 2019ko abenduaren 11koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, txanda-kontraturako laguntzen deialdia argitara ematen duena, 2020. urterako.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2019ko abenduaren 11ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, txanda-kontraturako laguntzen deialdia egitea onartu du 2020. urterako. Maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onartutako Lanbideren Estatutuen 10.2 artikuluko p) letran xedatutakoaren arabera, erakunde autonomo horren zuzendari nagusiari dagokio hori argitaratzea.

Azaldutakoagatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea txanda-kontraturako laguntzen 2020ko deialdia, erakunde autonomo honen administrazio-kontseiluak 2019ko abenduaren 11ko bilkuran hartutako erabakiaren bitartez onartua. Ebazpen honen eranskinean dago jasota.

Bigarrena.– Jakinaraztea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dituela ondorioak laguntzen deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiak.

Hirugarrena.– Adieraztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiaren aurka, zeinaren bidez deialdia onartzen baita, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaiola organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 11.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JUAN JOSE BORJA BELANDIA FRADEJAS.

ERANSKINA

TXANDA-KONTRATUAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK 2020. URTERAKO

XI. legegintzaldiari begira, 2016-2020 gobernu-programaren lehentasuna enplegua da, eta langabezia-tasak % 10etik behera murrizteko erronka ezarri du. Horretarako, enplegua sortzeko eta enplegu horren kalitatea hobetzeko ekonomia- eta gizarte-politika publikoak sustatuko ditu. Enplegua eta ekonomiaren suspertzea lotu-lotuta daude. Hazkunde sendoa lortzea da programaren ardatzetako bat, enplegu gehiago eta hobe izatea; eta haren konpromiso bat da gure gizartean zailtasun handienak dituzten kolektibo batzuen, gazte langabeen eta 45 urtetik gorako langabeen, laneratzea bultzatzea.

Zehazki bi kolektibo horiek izan dira krisi ekonomikoa gehien nozitu dutenak. EUROSTATen arabera, Europar Batasunean, 2019ko bigarren hiruhilekoan, langabezia-tasa % 10,9koa da 30 urtetik beherakoentzat, eta % 4,6koa 45 urtetik gorakoentzat. Gure lurralde-eremuan, EUSTATEk aldi bererako ematen dituen datuen arabera, 30 urtetik beherakoentzat langabezia-tasa % 17,6koa da, eta % 8,6koa 45 urtetik gorakoentzat, eta azken adin-talde horrek langabetuen % 44,8 hartzen du. Beraz, 2 kolektibo horien langabezia murrizteak lehentasuna izan behar du gure gizartean, eta erronka horri heldu behar diote bai erakundeek bai arlo pribatuak.

2020ko Enpleguaren Euskal Estrategiak A3 jarraibidean adierazten duenez, belaunaldi-aldaketan prozesuetarako laguntza publikoen programak (ekonomikoak eta/edo laguntza tekniko moduan) ezarri ahalko dira, belaunaldi-aldaketa lan-munduan sartzeko prozesuekin behar bezala lotuz eta belaunaldien arteko ezagutzaren transmisioari bide emanez, enpresan bildutako esperientziak ematen duen balioa ez dadin deskapitalizatu.

Ezin da ukatu enpresek talentu gaztea hartu behar dutela, gazteek gaitasuna dutelako enpresetan gertatzen diren aldaketa teknologikoetara eta eskakizun berrietara egokitzeko. Horrela, enpresek, biziraun nahi badute, plantillak gaztetu behar dituzte, eta, aldi berean, hori aukera ona da gazteentzat, kalitatezko enplegu egonkorra lortzeko.

Egia da, era berean, egungo testuinguru sozial eta ekonomikoan 45 urtetik gorako pertsonen zailtasun nabarmenak dituztela enplegu berri egonkorra eskuratzeko, eta egoera horrek deskapitalizatu egiten duela esperientziak duen balioa; hori horrela, bi kolektibo horiek laneratzeko neurri kohesionatuak bultzatu eta sustatu behar dira, jakintzaren eta eskarmentu profesionalaren transmisioa egiteko belaunaldien artean.

Horregatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren proposamena kontuan hartuta, erakunde autonomo horren administrazio-kontseiluak, 2019ko abenduaren 11ko bilkuran, txanda-kontratuak egiteko laguntzen deialdia onartu du, ezaugarri hauekin:

1. artikulua.– Xedea eta aplikazio-eremua.

1.– Deialdi honen helburua da urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuen Legearen testu bateginaren 12.7 artikuluan aipatzen diren txanda-kontratuak egiteko laguntzak erregulatzea.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoan dauden lantokietan zerbitzuak emateko izenpetzen diren lan-kontratuari aplikatuko zaizkie deialdi honetan aurreikusitako laguntzak, 2019ko urriaren 22tik aurrera hasitakoei, hain zuzen.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 1.000.000 eurokoak dira guztira; horietatik, 2020ko ordainketa-kreditukoak dira 600.000 euro, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrekontuko 32110-Enplegurako programan aurreikusitako konpromiso-kreditukoak 400.000 euro 2021 urterako.

2020ko ekitaldikoa finantzatzeko laguntzak ebazteko, enplegu lagunduaren jardueri dago-kienz, kreditu nahikoa eta egokia egon behar da 2020. urterako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan, betiere Ogasun eta Herri Administrazioaren sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikulua onorioetarako; agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargutan egiteko diren gastu-espeditenteen aurretiazko izapidetzea araupetu zen.

Laguntzen bolumen osoak ez du gaindituko aipatutako zenbateko hori edo zenbateko hori eguneratetik ateratzen dena, aurrekontu-aldaketarik onartzen bada indarreko legeekin bat. Eguneratzerik izanez gero, publikotasuna eman behar zaio, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez eman ere.

2.– Deialdi honek diruz laguntzen dituen jarduerak Europako Gizarte Funtsaren laguntzaz finantza daitezke, Gazte Enplegurako 2014-2020ko Programa Operatiboaren esparruan.

3. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Deialdian araututako laguntzen onuradunak izan daitezke bertan ezarritakoaren araberrako txanda-kontratuak egiten dituzten pertsona fisikoak eta juridikoak, hauek izan ezik: administrazio publikoak eta haien mendeko erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeak. Baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean izatea.

Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du, behar beste aldiz, dirulaguntzen eskaera egiten duten enpresek egunean dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Dirulaguntza eman eta ordainketa bakoitza egin aurretik egiaztatuko du hori, eta egiaztapen horiek egiteko, ez du eskatzaileen baimenik behar, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.3 artikulua xedatzen duenari jarraituz.

Hala ere, eskatzaileak berariaz aurka egin diezaioke egiaztatze horri, eta, halakorik egiten baldin badu, baldintza hori betetzen duela egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu behar ditu.

b) Dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor- edo administrazio-arloko zehapenik jaso ez izana, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik jaso ez izana, barnean hartuta sexu-diskriminazioarekin loturikoak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat.

c) Enpresako langileen legezko ordezkari (LLO) deialdi honen babespeko txanda-kontratuaren bidez kontratatze asmoaren berri ematea, bete beharreko lanpostua zein den eta kontratuak zenbat iraungo duen adierazita. Enpresak LLOrik ez badu, espresuki adierazi behar du hori eskabidean.

d) Europar Batasuneko Batzordearen aurreiazko erabakiaren bidez laguntza bat legearen aurkakoa eta merkatu erkidearekin bateraezina dela adierazi ostean ez egotea berreskuratze-agindu baten zain.

e) Dirulaguntzak itzultzeko ordainketa guztiak eginak izatea.

f) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13 artikuluan aurreikusitako gainerako egoeraren batean, dirulaguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.

2.– Enpresei dirulaguntzak emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbesteko baldintza izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko dirulaguntzen esparruan hasita dauden baina oraindik bideratzen ari diren itzultze- edo zigor-prozedura guztiak amaituta egotea.

4. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduketak.

1.– Diruz lagunduko dira lanaldi osoko eta muga gabeko txanda-kontratuak, edo iraupen mugatukoak baldin eta, behin hori amaituta edo lehenago, mugagabe bihurtzeko konpromisoa jasotzen bada; enpresek txanda-kontratu horiek egin behar dizkiete eskakizun hauek bete dituzten pertsonei:

a) 30 urte baino gutxiago edo 45 baino gehiago izatea.

b) Honako egoera hauetakoren batean izatea:

b.1.– Kontratuaren hasiera-datan, langabe-izaera edukitzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan.

b.2.– Enpresarekin iraupen mugatuko kontratu bat itunduta izatea. Egoera hori gertatzen denean, enpresak, txanda-kontratuaz gain, kontratazio gehigarri bat egin behar du, aldi baterako kontratu hori amaitzeko falta den denborarako gutxienez, b.1 eta b.3.1 apartatuetan aurreikusitako eskakizunak betetzen dituen 30 urtetik beherako edo 45 urtetik gorako pertsona bati.

b.3.– edo, 30 urte baino gutxiago dutenek,

b.3.1.– Enpresa horrekin berarekin praktikaldiko edo prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratua hitzartuta izatea edo 1543/2011 Errege Dekretuak araututako lanez kanpoko praktikaldiaren bat egiten aritzea, eta

b.3.2.– Txanda-hartzaile izatera igarotzea kontratu horren edo lanez kanpoko praktikaldiaren indarraldian, edo horiek amaitu ondorengo egunean.

2.– Txanda-hartzaileari ez zaio ezarriko 1.a) letran aurreikusitako adin-eskakizuna, baldin eta enpresak alde aurreko akordio baten bidez zehaztuta baldin badu zer prozedura erabiliko den enpresako jarduneko langileekin eta txanda-kontratuaren bidez betetzeko enpresa horretan bertan hartzen diren erretiro partzialak. Egoera hori gertatzen denean, enpresak, laguntza eskuratzeko, txanda-kontratua egiteaz gain, beste pertsona bat kontratatu behar du, 45 urte baino gehiago izan eta b.1 letrako baldintza betetzen duena edo, 30 urte baino gutxiago izanda, b.1 eta b.3.1 puntuetan adierazten diren baldintzak betetzen dituena.

3.– Edonola ere, dirulaguntza eskuratu ahal izateko, txanda-hartzaile gisa kontratatutako pertsonak gutxienez 14.000 euroko ordainsari gordina izan behar du urteko.

5. artikulua.– Dirulaguntzarik izango ez duten jarduketak.

Deialdi honetan ez dira diruz lagunduko honako hauek:

a) Banako enpresaburuaren ezkontidearen kontratazioa, haren aurreko edo ondorengo ahai-deen kontratazioa, edo odol-ahaidetasun bidezko, ezkontza bidezko zein adopzio bidezko alboko ahai-deen kontratazioa, bigarren mailara artekoak barne.

b) Sozietate, elkarte edo korporazio gisa sortutako erakundeetako bazkideak kontratatzea, edo haien aurreko, ondorengo edo alboko ahaideak kontratatzea, bigarren mailara artekoak barne, edo erakunde horietako gobernu-organoetako eta zuzendaritzetako kideen ahaideak kontratatzea.

6. artikulua.– Dirulaguntzaren zenbatekoa.

1.– Txanda-hartzailea 4. artikuluan arautzen diren baldintzak betez kontratatzen baldin bada, 8.400 euroko dirulaguntza emango da. Zenbateko hori % 10 handiagoa izango da txanda-hartzailea emakumea baldin bada.

2.– Indarreko arauetan aurreikusitako laguntzak eskura ditzake 4. artikuluan aipatutako kontratazio gehigarriak, horretarako baldintzak betez gero.

7. artikulua.– Eskabideak eta nahitaezko dokumentazioa aurkezteko epea.

1.– Dirulaguntzen eskabideak aurkezteko epe hauek izango dira:

a) Deialdi honek EHAAn argitaratu aurretik hasitako kontratuentzat: hiru hilabete, EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

b) Deialdia EHAAn argitaratu den egunean edo ondoren hasitako kontratuentzat: hiru hilabete, txanda-kontratu hasi den egunetik aurrera.

Edozein kasutan ere, eskabideak aurkezteko azken eguna 2020ko urriaren 16a izango da.

2.– Dirulaguntzak eskuratzeko eskabideak egoitza elektronikoen bitartez aurkeztu beharko dira. Honako esteka honetatik sar daiteke bertara: <https://euskadi.eus>. Gainera, sarbide-esteka bat egongo da Lanbideren webgunean bertan.

Eskabidea aurkeztu ondorengo izapideak egiteko, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera jo beharko da: <https://euskadi.eus>.

Eskabideak modu elektronikoen nola izapidetu jakiteko xehetasunak <https://euskadi.eus> egoitza elektronikoen eskuratu daitezke.

3.– Eskabidearekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Eskatzailea pertsona fisikoa bada, nortasun-agiri nazionalaren, pasaportearen edo nortasun-agiri baliokidearen kopia, edo atzerritarren identifikazio-zenbakia, edo laguntzaren organo kudeatzaileak nortasun-datuak egiaztatu ahal izateko berariazko baimena.

b) Eskatzailea pertsona juridikoa bada, enpresaren identifikazio fiskalaren txartelaren kopia.

c) Eskatzailea pertsona fisikoa bada, organo eskudunaren ziurtagiria, Ekonomia Jardueren gaineko Zergen epigrafean adierazita. Jarduera hori bigarren edo hirugarren sekzioan sailkatua badago, jarduera hasteagatik atxikipen-tasa murriztua aplikatzeari dagokionez (jarduera-hasierraren zergaldia eta hurrengo biak), eskatzaileak egoera horren berri eman beharko dio LANBIDERi jakinarazi beharko dio; eta, horretarako, komunikazio bat aurkeztu beharko du, sinaturik, eta <http://www.lanbide.euskadi.eus> web-orrian eskura egongo da eskabidearekin batera.

d) Txanda ematen duen pertsonaren, txanda hartzeko kontratatzen den pertsonaren eta, halakorik egin bada, gehigarri kontratatu den pertsonaren nortasun-agiri nazionalaren edo atzerritarren identifikazio-zenbakiaren kopia.

e) Txanda-kontratuaren kopia eta erretiro partziala hartzen duen pertsonaren lanaldi partzialeko kontratuaren kopia. Txanda-kontratuari iraupen mugatua ematen bazaio, mugagabe bihurtzeko konpromiso sinatua, enpresak eta langileak edo kontratatutako langileak sinatua.

f) Enpresako langileria finakoaren egiaztagiria, Euskal Autonomia Erkidegoko lantokietakoa, txanda-kontratu hasten den unekoa. Horretarako, Gizarte Segurantzaren dokumentu hau aurkeztu behar da: «altan diren langileen txostena - ALT» (RED sistemaren bidezkoa), enpresak eremu honetan dituen kotizazio-kontuen kode guztietarako.

g) Txanda-kontratu enpresako langileren batekin hitzartuz gero, horren aurretik zuen iraupen mugatuko kontratuaren kopia aurkeztu behar da, 4. artikuluan adierazitako kontratu gehigarriaren kopiarekin batera.

Halakorik badago, praktikaldiko edo prestakuntzarako eta ikastunaren kontratuaren kopia, edo lanez kanpoko praktikaldiaren akordioa.

h) Halakorik badago, 4.2 artikuluan adierazten den enpresa-akordioaren kopia.

4.– Dirulaguntzetarako eskabideak guztiz betetzen ez badira edo aginduzko dokumentazioa atxiki ez bazaie, pertsona edo erakunde eskatzaileari eskatuko zaio hamar eguneko epean hutsegitea zuzentzeko edo aginduzko dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko zaio ezen, egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, horretarako, alde aurretiko ebazpena emango da administrazio-prozedura erkidearen arabera.

8. artikulua.– Kudeaketa, ebazpena, ebazteko epeak eta errekursoak.

1.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren Laneratzea Aktibatze zuzendaria izango da deialdi honetako dirulaguntzetarako eskabideak kudeatzeko eta izapidetzeko organo eskuduna.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak banakako eta berriazko ebazpena emango ditu deialdi honetako dirulaguntzak emateko zein, hala behar duenean, ezesteko.

3.– Eskaerak aurkezten diren hurrenkeran aztertuko dira, eta hurrenkera horretan emango zaizkie laguntzak deialdiko betekizunak eta baldintzak betetzen dituztenei, harik eta aurrekontu-zuzkidura amaitu arte. Kredituaren balizko handitzeak alde batera utzita, behin aurrekontu-zuzkidura amaituta, geratzen diren eskabideei ezezkoa emango zaie, eta EHAAn argitaratuko da horren berri, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez.

4.– Eskabideak ebazteko eta ebazpenak jakinarazteko gehieneko epea sei hilekoa da, eskaera bideratzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskabide hori sartzen denetik aurrera; epe hori igarota, interesdunari ez bazaio ebazpenik jakinarazi, dirulaguntza emandakotzat hartuko da.

5.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, horren aurka, berraztertze errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtoa ere jar daiteke zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita.

6.– Publikotasunaren printzipioa betetzeko, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Lanbideko zuzendari nagusiak emandako ebazpen baten bidez, zer enpresek jasoko dituzten deialdi honetako dirulaguntzak eta zenbateko laguntza jaso duten. Nolanahi ere, laguntzak emateko ebazpen hori berriaz eta banan-banan ere jakinaraziko da.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 (EB) Erregelamenduaren 2. puntuko 115. artikulua adierazten duen zerrenda publikoan jasoko da erakunde onuradunen zerrenda.

9. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzeko eta justifikatzeko modua.

Honela ordainduko dira deialdi honetan ematen diren dirulaguntzak:

– Eskabidea onesten den unean ordainduko da % 60.

– Gainerako % 40a laguntza hori eman eta urtebetera ordainduko da; aldez aurretik, egiaztatu beharko du enpresak langileria finkoari eutsi diola Euskal Autonomia Erkidegoko lantokietan. Horretarako, Gizarte Segurantzaren «altan diren langileen txostena - ALT» aurkeztu beharko du (RED sistemaren bidezkoa) enpresak, eta Lanbidek egiaztatu beharko du kontratatutako langileak enpresan segitzen duela.

Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren bigarren eta hirugarren sekzioetan adierazitako lanbide-jardueraren bat baldin bada dirulaguntza jasoko duen jarduera, zerga horren araudia betetzean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan (PFEZ) egiten den konturako atxikipeen zenbatekoa kenduko zaio dirulaguntzaren zenbatekoari, eta PFEZean jarduera hasierari dagokion konturako atxikipeen-tasa ezartzeko (jardueraren hasierako zergaldian eta hurrengo bietan), eskatzaileak Lanbideri jakinarazi behar dio zer arrazoi dauden tasa hori ezartzeko. Hemen eskuragarri dagoen ereduaren arabera aurkeztu behar da jakinarazpen hori, izenpetuta: <http://www.lanbide.euskadi.eus>

10. artikulua.– Enpresa onuradunen betebeharrak.

Erakunde onuradunaren betebeharrak izango dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikuluetan oro har ezarritakoak, bai eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginak (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsia) 50.2 artikuluan jasotakoak ere, eta, bereziki, honako hauek:

a) Langileen egonkortasuna bermatzea. Jasotako dirulaguntzak itzuli beharko dira langilearen kontratua amaituz gero edo, lantoki mugikor edo ibiltaririk ez duten enpresetan, autonomia-erki-degotik kanpoko lantokiren batera aldatuz gero, eta eraginpeko langilea ordezkatzeko ez bada 4. artikuluan adierazitako eskakizunak betetzen dituen beste langile baten aldibereko kontratazioaren bidez. Kontratazio berri honek ez du sorraraziko beste dirulaguntzarik Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek enplegua sustatzeko dituen arauetan programatutakoetatik.

b) Diruz lagundutako kontratazioak hasten diren unean Euskal Autonomia Erkidegoko lantokietan dagoen langileria finkoaren enplegu-mailari eustea, txanda-kontratua egin osteko 20 hiletan. Ondorio horietarako, kasu hauetan ez da ulertuko betebeharrak ez dela bete: lan-kontratuak azkentzea erretiroengatik, bidezko deklaraturako kaleratzeengatik, dimisioagatik, heriotzagatik, langileen ezintasun iraunkor osoagatik, absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik, edo probaldian zeharreko ebazpenagatik. Hala ere, enpresak bere langileria finkoaren lanpostuen % 65i eutsi behar dio edozein kasutan ere. Enplegu-mailei eusteko betebeharrak bete ezean, dirulaguntza itzuli beharko da.

Betebeharrak hori bete egin dela egiaztatzeko, enpresa onuradunak aurkeztu behar du, erreferentziako 20 hilen buruan, Gizarte Segurantzaren «altan diren langileen txostena - ALT» (RED sistemaren bidezkoa), enpresa horren EAEko lantokiei buruzkoa.

c) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea langile txanda-hartzailearen lan-kontratua mugagabe bihurtu dela.

d) Langileen legezko ordezkari edo, halakorik ez badago, langileei beraiei jakinaraztea zer-nolako neurriak garatu nahi dituen enpresak deialdi honetako dirulaguntza izan dezaketen jarduketan gainean; berariaz zehaztu beharko du zer pertsona ukitzen diren eta zer kontratazio aurreikusten diren, erretiro partzialeko baldintzekin batera.

e) Kontabilitate-kodeketa egoki bat izatea, jasotako dirulaguntzei eta euren trazabilitateari loturiko transakzio horiek modu argian identifikatzeko modua ematen duena.

f) Helburu berberarekin beste edozein administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribatutatik dirulaguntzak edo laguntzak jasoz gero, horren berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

g) Diruz lagundutako jardueraren xedeari edo izaerari nabarmen eragin diezaiokeen edozein gertaeraren berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari. Horretaz gain, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak beren eginkizunen jardunean eskatzen duten informazio guztia ematea, arau honen oinarrien arabera eskuratutako dirulaguntzei buruzkoa.

h) Honako hauen egiaztatze-jarduketei eta finantza-kontrolari baiezkota ematea eta eskatutako informazio oro ematea: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Ogasun eta Ekonomia Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoa, eta Europako funtsen kontrol-instantziak.

i) Europako funtsei datxezkien jarraipen- eta ebaluazio-ondorioetarako, langile txanda-hartzaileari buruz eskatzen diren datuak ematea, eta programa horren barneko hautagarritasun-eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko bidea ematea.

j) Beren-beregi jasotzea edo adieraztea Lanbide eta Europako Gizarte Funtsek elkarrekin finantzatu dituztela –Gazte Enplegurako 2014-2020ko Programa Operatiboaren esparruan deialdi honen babesean diruz lagundutako jardueren komunikaziorako, hedapenerako edo argitalpenerako material eta ekintza guztiak.

k) Gutxienez, 2024ra arte gordetzea eta zaintzea diruz lagundutako kontratu guztiei buruzko dokumentazioa, inoiz egiazta baitaiteke deialdi honen arabera bete beharreko konpromiso eta betebeharrak guztiak bete direla.

l) Edonola ere, artikuluko betebeharrak betetzen direla egiaztatuko du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak.

11. artikulua.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko bateraezintasuna.

Deialdi honetan ezarritako kontratazio-laguntzak ezin izango dira bateratu beste dirulaguntza batzuekin, baldin eta kontratazio bererako badira, erakunde honek zein beste erakunde publikoren batek eman arren, eta ez badira Gizarte Segurantzako kotizazioetarako.

12. artikulua.– «Minimis» araua.

1.– Deialdi honetan adierazitako laguntzak «minimis» aruari lotuko zaizkio; Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EE) Erregelamenduan dago xedatuta arau hori, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatzei buruzko erregelamendua izanik. Kalifikazio horren ondorioz, enpresa bakarrari «minimis» laguntzetan emandako guztizko zenbatekoa ez da izango 200.000 eurotik gorakoa hiru ekitaldi fiskalen barruan.

2.– Kasuko ekitaldi fiskalean eta aurreko bietan jasotako minimis laguntza horiei buruzko aitortpena egin beharko du pertsona edo erakunde eskatzaileak, zehaztu behar baita minimis laguntza berriak ez duela gainditzen Erregelamenduan ezarritako muga maximoa.

13. artikulua.– Ez-betetzeak.

Deialdi honetako erakunde onuradunek jasotako zenbatekoak eta legezko interesak –laguntzak ordaintzen direnetik aurrerakoak– itzuli beharko dituzte, baldin eta honako xedapen hauetan oro har aurreikusitako betebeharrak betetzen ez badituzte: dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikulua eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko 50.2 artikulua. Zenbatekoak eta interesak itzuli beharko dituzte, orobat, deialdi honetan ezarritako betebeharrak espezifikokoak betetzen ez badituzte edo azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko 53.1 artikuluan dirulaguntzak itzultzeko ezarritako kasuetako batean sartzen badira. Itzuli beharrekorik bada, horiek itzultzeko, xedapen horretan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan horretarako ezarritako prozedurari jarraituko diote (Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen ditu dekretu horrek eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen ditu). Aipatutako diru-kopuruak diru-sarrera publikotzat hartuko dira lege-ondorio guztietarako.

14. artikulua.– Dirua itzultzeko prozedura.

1.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak abiaraziko du itzultzeko prozedura, eta idazkia bidaliko dio laguntza jaso duen enpresari, ez-betetzea eragin duen edo duten gertaeraren edo gertaeren berri emateko. Hori ez ezik, jakinaraziko dio egokitze jotako alegazioak edo egiaztagiriak aurkezteko hamabost eguneko epea duela. Prozedura hori hasten denean, eten egingo dira egiteko dauden ordainketak, halakorik egonez gero.

2.– Alegazioak aurkezteko epea igarotakoan halakorik aurkeztu ez badu edo ez badira onartu, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpena emango du. Hamabi hilekoa izango da itzultzeko prozedurari buruzko ebazpena jakinarazteko gehieneko epea.

3.– Ebazpenak arauen bat urratu dela iritzi gero eta dirulaguntza osorik edo partez jasotzeko eskubidea galdutzat emanez gero, interesdunak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko dizkio dagozkion diru-zenbatekoak, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten denetik hasita. Borondatezko epetzat joko da epe hori.

4.– Borondatezko aldi horretan dirulaguntza itzultzen ez bada, dirulaguntza berreskuratzeko premiamendu-bidera jotzeko izapideak hasiko dira.

15. artikulua.– Datu pertsonalen tratamendua.

Datu pertsonalen babesaren arloan, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean (2016/679/EB Erregelamendua) eta Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera jokatu du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak. Biltzen dituen datu pertsonalak «Enpleguko eta enplegurako prestakuntzako dirulaguntzak» tratamendu-jardueran erabiliko dira. Horren ardura du Lanbidek, Lanbideren eskumeneko enplegu-politika aktiboei loturiko dirulaguntza kudeatzeko eta kontrolatzeko, iruzurra jazartzeko eta estatistikak egiteko helburuekin. Bildu diren datuak beharrezkoak dira Lanbideri esleitutako ahalmen publikoak gauzatzeko eta lege-betekizunak betetzeko, eta arloan eskumena duten administrazio publikoei jakinarazi ahal izango zaizkie.

Datuen titularrek datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko, datuen aurka egiteko eta datuen tratamendua mugatzeko eskubideak erabili ahal izango dituzte, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari idatzizko jakinarazpen bat bidalita (Jose Atxotegi kalea 1, 01009, Vitoria-Gasteiz).

Datuen babesari buruzko informazio gehiago eta zehatzagoa hemen: http://www.lanbide.euskadi.eus/general/-/informacion/condiciones_de_uso_y_politica_de_privacidad/

16. artikulua.– Dirulaguntzen arloan bete behar diren arauak.

Dirulaguntzen deialdi honek dirulaguntzei buruzko araubide juridikoko oinarritzko arau hauek bete behar ditu: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa. Era berean, arau hauetan xedatutakoa ere aplikatuko da: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bategina onartzekoa, eta zehazki, arau horren VI. titulua eta VII. tituluko III. kapitulua; eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargurako dirulaguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra arautu eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen betekizunak, araubidea eta betebeharrak ezartzekoa.

Dirulaguntzak Europako Gizarte Funtsak kofinantzatzen dituenek, bete beharrekoak dituzte Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2013ko abenduaren 17an emandako 1303/2013 (EB) Erregelamendua, eta Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2013ko abenduaren 17an emandako 1304/2013 (EB) Erregelamendua, Europako Gizarte Funtsari buruzkoa eta Kontseiluaren 1083/2006 (EB) Erregelamendua indargabetzekoa.

2019ko abenduaren 26a, osteguna



ESKABIDEA		
8	TXANDA-KONTRATUAK EGITEKO LAGUNTZAK	Urtea: 2020
		

ESKATZAILEA:.....

SARRERA-ERREGISTROA

LURRALDE HISTORIKOA

ARABA	01	
GIPUZKOA	20	
BIZKAIA	48	

ESPEDIENTE-ZENBAKIA

2	0	2	0	R	E	P	L	E											
---	---	---	---	---	---	---	---	---	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--





LAGUNTZEN XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA	
Deialdi honetan zehaztutako eta 2019-10-22 eta 2020-10-16 bitartean hasitako txanda-kontratuak, EAeko lantokietan zerbitzuak ematekoak.	
ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA	
Deialdia argitaratu aurretik formalizatutako kontratuentzat, 3 hileko gehieneko epea izango da deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, eta deialdia argitaratu ondoren formalizatzen direnentzat, hiru hilabeteko epea izango da, baina txanda-kontratuaren hasiera-datatik kontatzen hasita.	
AURKEZTEKO LEKUA	
<ul style="list-style-type: none"> • Dirulaguntzak eskuratzeko eskabideak egoitza elektronikoaren bitartez aurkeztu beharko dira. Honako esteka honetatik sar daiteke bertara: https://euskadi.eus. Gainera, sarbide-esteka bat egongo da Lanbideren webgunean bertan. • Eskabidea aurkeztu ondorengo izapideak egiteko, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera jo beharko da: https://euskadi.eus • Eskabideak modu elektronikoan nola izapidetu jakiteko xehetasunak https://euskadi.eus egoitza elektronikoan eskuratu daitezke. 	
JARRAIBIDEAK	
<ul style="list-style-type: none"> • Errakuntzarik ez egiteko, eta zure onerako, arretaz irakurri, mesedez, txanda-kontraturako laguntzak arautzen dituen deialdia. • Osorik bete behar da eskabide honetan eskatutakoa, data eta eskatzailearen sinadura barnean, eta aurkeztu behar da koaderno honetan zerrendatutako dokumentazioarekin batera. Ohartarazten dugu eskaera ebazpen bidez ezetsiko dela, baldin eta, dokumentazioa aurkezteko errekerimendua egin ondoren, eskatzaileak ez badu hura aurkezten hamar eguneko epean. 	
DATUEN BABESA	
Tratamendu-jarduerak	Enplegurako eta enplegu-prestakuntzarako dirulaguntzak.
Arduraduna	Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua.
Xedea	Lanbideren eskumen diren enpleguko politika aktiboekin eta prestakuntzarekin lotutako dirulaguntzak kudeatu eta kontrolatzea.
Legitimazioa	Tratamenduaren arduradunari emandako ahalmen publikoak baliatzea.
Datu-lagapenen hartzaileak	Gai horretan eskumenak dituzten administrazio publikoei laga ahalko zaizkie datu pertsonalak.
Eskubideak	Zuk zeure datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko eskubidea duzu, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo hari aurre egiteko ere; informazio gehigarrian azaltzen da nola erabili eskubideok.
Informazio gehigarria	Gure webguneko pribatasun-politikaren atalean kontsulta dezakezu datu-babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza: http://www.lanbide.euskadi.eus/general/-/informacion/condiciones_de_uso_y_politica_de_privacidad/
Honako hauek betetzeko: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa Datu Pertsonalak Babestu eta Eskubide Digitalak Bermatzeko (https://www.boe.es/boe/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673.pdf)	

**1.- ENPRESA ESKATZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA**

ENPRESAREN DATUAK			
Enpresaren izena edo sozietatearen izena:			
IFZ/IFK:		EJSN:	
Jarduera nagusia:			
EAEko helbidea:			
PK:		Herria:	

HARREMANETARAKO PERTSONA			
Izena:		Abizenak:	
Kargua			
Telefonoa(k):			
Helbide elektronikoa:			

Forma juridikoa	Jarduera-arloa:
Sozietate Anonimoa	Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza
Kooperatiba-sozietatea	Erauzketa-industriak
Lan-sozietate anonimoak	Manufaktura-industria
Ondasun-erkidegoa	Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornikuntza
Sozietate mugatua	Ur-hornikuntza, saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa
Enpresaburu banakoa	Eraikuntza
Sozietate zibila	Txikizkako eta handizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa
Eraldaketarako nekazaritza-sozietatea	Garraioa eta biltegiatzea
Irabazi asmorik gabeko elkarte pribatuak	Ostalaritza
Lan-sozietate mugatua	Informazioa eta komunikazioak
Ugazaba- edo sindikatu-erakundea	Higiezinen jarduerak
Irabazi-asmorik gabeko bestelako erakundeak	Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak
Beste batzuk	Administrazio-jarduerak eta zerbitzu laguntzaileak
	Hezkuntza
	Osasuneko eta gizarte-zerbitzuetako jarduerak
	Arte-, jolas- eta entretenimendu-jarduerak
	Bestelako zerbitzuak.
	Etxeko langileak hartzen dituzten etxeetako jarduerak; etxeetako jarduerak, norberak erabiltzeko ondasunen edo zerbitzuen ekoizle gisa.
	Lurraldetik kanpoko erakundeen eta organismoen jarduerak

Markatu dagokiona (X) jarrita

Lanbidek automatikoki eskuratuko du eskatzailearen/ordezkairearen nortasuna.

Lanbidek eskatzailearen/ordezkairearen nortasuna ofizioz egiaztatzearen aurka nago.

(Aurka egonez gero, NANaren edo AIZren fotokopia aurkeztu beharko da).



**2.- ENPRESA-EGITURA EAE-N**

Lantoki kopurua EAEn, guztira	EAEko langile finkoen kopuru osoa txanda-kontratuaren hasieran
-------------------------------	---

EAE-KO LANGILE FINKOEN ZERRENDA KOTIZAZIO-KONTUEN KODEEN ARABERA

KK kodeak EAEn	EAEko langile finkoen kopuru osoa txanda-kontratuaren hasieran, kotizazio-kontuen kodeen arabera

3.- ERRETIRO PARTZIALA HARTZEN DUEN LANGILEAREN DATUAK (TXANDA-EMAILEARENAK)

NANa	Izena	1. abizena	2. abizena
Jaiotze-data	Adina	Sexua	
		Emakumea	Gizona
Lanaldi-murrizketaren ehunekoa		Erretiro osorako aurreikusitako data	
%			

Markatu dagokiona (X) jarrita



4.- TXANDA-KONTRATUA

TXANDA HARTZEN DUEN PERTSONAREN DATUAK

NANA		Izena	1. abizena	2. abizena
/ /		Adina	Sexua	
/ /			Emakumea	Gizona
TXANDA-HARTZAILEAREN KODEA:				
1	< 30 edo > 45 urteko adinekoa, kontratuaren hasiera-datan Lanbiden langabe gisa izena emanda dagoena (4.1.b.1 art.)			
2	< 30 edo > 45 urteko adinekoa, enpresarekin itundutako kontratu mugatua du (art. 4.1.b.2) *			
3	< 30 urtetik beherakoa, enpresa berean praktika-kontratu bat edo prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratu bat itundua duena, edo 1543/2011 Errege Dekretuan araututa dagoen eta lanekoa ez den praktikaldia egiten ari dena, baldin eta pertsona hori txanda-hartzailea izango bada kontratu horren edo lanekoa ez den praktikaldiaren indarraldian edo hura amaitu eta hurrengo egunean (4.1.b.3.1 eta b.3. art)			
4	Enpresako langilea: enpresan bertan aldeztu aurretiko akordioa dago bertan jardunean aritzen diren pertsonen txanda-kontratuen bidez ordezkatzeko erretiro partzialak (4.2 art.)**			

Markatu dagokiona (X) jarrita

(*) Kasu honetan beste betebeharrak ere badaude: 4.1.b.1 artikuluan ezarritako eskakizunak betetzen dituen 45 urtetik gorako pertsona bat kontratu beharko da, eta, 30 urtetik beherakoetan, 4.1.b.1 edo 4.1.b.3.1 artikuluetan ezarritako eskakizunak, eta kontratu hori izan beharko da aldi baterako kontratua amaitzeko falta den denborarako gutxienez.

Titulazio-maila									
Alfabetatu gabe	<input type="checkbox"/>	Lehen ikasketak amaitu gabe	<input type="checkbox"/>	OHO, titulurik gabe	<input type="checkbox"/>	OHO, DBH, IEE1	<input type="checkbox"/>	IG erdi-mailakoa,	<input type="checkbox"/>
BBB, UBI, IEE2, Batxilergoa	<input type="checkbox"/>	IG Goi-mailakoa, LH2, Industria Maisutza	<input type="checkbox"/>	Unibertsitateko diplomatura	<input type="checkbox"/>				
Unibertsitateko lizentzia	<input type="checkbox"/>	Graduko ikasketak	<input type="checkbox"/>	Masterra	<input type="checkbox"/>	Unibertsitateko doktoregoa			

Markatu dagokiona (X) jarrita

TXANDA-KONTRATUAREN DATUAK

Kontratu-mota	Kontratuaren hasiera-data
Mugagabea	/ /
Mugatua	

Markatu dagokiona (X) jarrita

Urteko ordainsari gordina	Kontratuan enpresako hitzarmenaren edo akordioaren batera joz gero*.	
(€)	Enpresako hitzarmenaren edo akordioaren izendapena	Argitaratze-data aldizkari ofizialean

* EHAAn argitaratu ezean, kopia aurkeztu behar da.



BETE BEHARREKOA BALDIN ETA TXANDA-HARTZAILEAK AURRETIK ENPRESAREKIKO KONTRATURIK BAZUEN EDO LANEZ KANPOKO PRAKTIKALDIA EGITEN BAZUEN («TXANDA-KONTRATUA» deritzon 4. zenbakiko 2., 3. eta 4. kodeak)

Aurreko kontratuaren / praktikaldiaren hasiera-data	Aurreko kontratuaren / praktikaldiaren amaiera-data
_ / _ / _	_ / _ / _

5. KONTRATAZIO GEHIGARRIA (DERRIGORREZKOA DENEAN SOILIK BETE BEHAR DA: 4. zenbakian dagoen «TXANDA-KONTRATUA» taulako 2. eta 4. kodeak)

KONTRATATUTAKO PERTSONAREN DATUAK

NANa	Izena	1. abizena	2. abizena
_ / _ / _			
Jaiotze-data	Adina	Sexua	
_ / _ / _		Emakumea	Gizona
KONTRATAZIO GEHIGARRIKO PERTSONA			
< 30 edo > 45 urteko adinekoa, kontratuaren hasiera-datan Lanbiden langabe gisa izena emanda dagoena (4.1.b.1 art.).			
< 30 urtetik beherakoa, enpresa berean praktika-kontratu bat edo prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratu bat itundua duena, edo 1543/2011 Errege Dekretuan araututa dagoen eta lanekoa ez den praktikaldia egiten ari dena, baldin eta pertsona hori izaera gehigarri kontratatuko bada kontratu horren edo lanekoa ez den praktikaldiaren indarraldian edo hura amaitu eta hurrengo egunean (4.1.b.3.1 art).			

Markatu dagokiona (X) jarrita

Titulazio-maila			
Alfabetatu gabe	<input type="checkbox"/>	Lehen ikasketak amaitu gabe	<input type="checkbox"/>
BBB, UBI, IEE2, Batxilergoa	<input type="checkbox"/>	IG Goi-mailakoa, LH2, Industri Maisutza	<input type="checkbox"/>
Unibertsitateko lizentzia	<input type="checkbox"/>	Graduko ikasketak	<input type="checkbox"/>
		OHO, titulurik gabe	<input type="checkbox"/>
		OHO, DBH, IEE1	<input type="checkbox"/>
		IG erdi-mailakoa,	<input type="checkbox"/>
		Unibertsitateko diplomatura	<input type="checkbox"/>
		Unibertsitateko doktoregoa	<input type="checkbox"/>
		Masterra	<input type="checkbox"/>

Markatu dagokiona (X) jarrita

KONTRATU GEHIGARRIAREN DATUAK

Kontratu gehigarriaren hasiera-data	Kontratu gehigarriaren amaiera-data
_ / _ / _	_ / _ / _



ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

_____ jaunak/a
ndreak, _____
enpresaren izenean eta hura ordezkatzuz, hau
_____ ADIERAZ

TEN DUT:

Lehena
Enpresa eskatzailea ez dago 3.1 artikuluko salbuespenen egoeran (Administrazio Publikoak eta sektore publikoko beste edozein organismo edo erakunde).

Bigarrena
Ez dago deialdiaren 5. artikuluan adierazitako eragozpen-egoerarik (ahaidetasuna eta bazkidetza).

Hirugarrena

a) Enpresa eskatzaileak ez du jasotzen kontratazio bererako beste inolako laguntzarik erakunde publikoen aldetik (Gizarte Segurantzako kotizazioei loturikoak salbuetsirik daude).

b) euroko laguntza jaso dut honengandik: (*)

c) Laguntza eskatu diot _____-ri (*), eta ebazpenaren zain nago.

(*) Laguntza ematen duen erakundea: udala, aldundia, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa, etab.

Laugarrena
Enpresa eskatzaileak ez du hasita itzulketa- edo zehapen-prozedurarik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko dirulaguntza edo laguntzaren baten ondorioz.

Bosgarrena
Enpresa eskatzaileak ez du jaso dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galtzeko zehapen administratibo edo penalik, ezta haiek eskuratzeko legezko debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera edo emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barnean izanik.

Seigarrena

a) Enpresa eskatzaileak enpresako langileen legezko ordezkari (LLO) eman dio deialdi honen babespeko txanda-kontratuaren bidez kontratatze asmoaren berri, bete beharreko lanpostua zein den eta lan-harremana nolakoa izango den adierazita (hasieratik mugagabea izango den, edo mugatua, bera amaitutakoan edo lehenago mugagabe bihurtzeko konpromisoarekin batera).

b) Enpresa eskatzaileak ez du enpresako langileen legezko ordezkari; beraz, langileei eman die deialdi honetan arautzen den txanda-kontratuaren bidez kontratatze asmoaren berri, eta adierazi die zer lanpostu beteko den eta zer-nolakoa izango den lan-harremana (hasieratik mugagabea izango den, edo mugatua, amaitutakoan edo amaitu aurretik mugagabe bihurtzeko konpromisoarekin batera).

Zazpigarrena
Enpresa eskatzailea ez dago, dirulaguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean.



Zortzigarrena
 Minimis araua betetzen den egiaztatu eta deialdiaren 12. artikuluan xedatutakoa betetzeko xedez:

a) Enpresa eskatzaileak ez du jaso, azken hiru urteotan, minimis araubideko laguntzarik.

b) Enpresa eskatzaileak minimis araubideko laguntza hauek eskatu edo jaso ditu jarduneko ekitaldi fiskalean eta aurreko bietan, Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013/EB Erregelamenduaren arabera —Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzko erregelamendua—.

Eskutatako dirulaguntzen kopurua:

Egoera (*)	Erakunde Laguntza-emailea	Laguntzaren helburuaren deskribapena	Zenbatek. (euro)	Data (eskatu / eman)

(*) 1 = Laguntza eskatu da 2 = Laguntza eman da

Bederatzigarrena
 Enpresa eskatzaileak ez du berreskuratzeko agindu bete gaberik, Europar Batasuneko Batzordeak aurretiaz hartutako erabaki baten bidez laguntza bat legez kanpokotzat eta barne-merkatuarekin bateraezintzat jo izanaren ondoriozkorik.

Hamargarrena
 Diruz lagundutako kontratazioak hasten diren unean Euskal Autonomia Erkidegoko lantokietan duen langileria finkoaren enplegu-mailari eusteko konpromisoa hartzen du enpresak, txanda-kontratua egin osteko 20 hiletan. Betiere, enpresak plantilla finkoko lanpostuen gutxienez % 65 mantendu behar du.

Hamaikagarrena
 Epaitegiek adierazitako lan-kontratuen amaiera bidegabean eta baliogabeen jakinarazpena egiteko konpromisoa hartzen du enpresak.

Hamabigarrena
 Lanbidek zuzenean lortuko ditu Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak.
 Lanbidek Ogasunarekiko zein Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen direla ofizioz egiaztatzearen aurka nago.. (Aurka egonez gero, egunean dagoela adierazten duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko dira)

Hamahirugarrena
 Eskabide honetan adierazitako datuak egiazkoak dira.

Irakurri egin dut, eta onartu egiten dut Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu erakunde autonomoak datu pertsonalak jaso eta tratatzeko segurtasun-politika, eskabide honen bigarren orrian zehaztuta.

_____ (e)n _____ (eko) _____ aren _____ (e)(a)n

Sin.: _____
 (Adierazi sinatzen duen pertsonaren izena)



ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA

- Eskatzailea pertsona fisiko bat bada, nortasun-agiri nazionalaren, pasaportearen edo nortasun-agiri baliokidearen kopia, edo atzerritarren identifikazio-zenbakia, edo laguntzaren organo kudeatzaileak nortasun-datuak egiaztatu ahal izateko berariazko baimena.
- Eskatzailea pertsona juridiko bat bada, enpresaren identifikazio fiskalaren txartelaren kopia.
- Txanda-kontratuaren kopia eta erretiro partziala hartzen duen pertsonaren lanaldi partzialeko kontratuaren kopia. Txanda-kontratuari iraupen mugatua ematen bazaio, mugagabe bihurtzeko konpromisoa, enpresak eta langileak sinatua.
- Kontratatutako pertsonen nortasun-agiri nazionalen edo atzerritarren identifikazio-zenbakien kopia.
- Enpresako langileria finakoaren egiaztagiria, txanda-kontratua hasten den unekoa. Horretarako, Gizarte Segurantzaren dokumentu hau aurkeztu behar da: «altan diren langileen txostena - ALT» (RED sistemaren bidezkoa), enpresak EAEn dituen lantokietako kotizazio-kontuen kode guztietarako. Halakorik izan ezean, enpresak dituen kotizazio-kontuen kode guztietako langile guztien lan-bizitzaren txostenak aurkeztu beharko dira.
- Txanda-kontratua praktikaldiko edo prestakuntzarako eta ikastunaren kontratua amaitzen duen pertsonaren bati eginez gero, kontratu horren kopia.
- Txanda-kontratua lanez kanpoko praktikaldia amaitzen duen pertsonaren bati eginez gero, praktikaldiko pertsonaren eta enpresaren arteko akordio sinatuaren kopia.
- Txanda-kontratua enpresako langileren bati eginez gero, horren aurretik zuen kontratu mugatuaren kopia, 4. artikuluan aipatutako kontratu gehigarriaren kopiarekin batera. Kontratu gehigarria praktikaldiko edo prestakuntzarako eta ikastunaren kontratua amaitzen duen pertsonaren bati eginez gero, kontratu horren kopia. Kontratu gehigarria lanez kanpoko praktikaldia amaitzen duen pertsonaren bati eginez gero, praktika horiek egiteko akordioaren kopia.
- Txanda-hartzailea kontratatzeko, enpresa-akordiorik hartu bada oinarritzat, suertatzen diren erretiro partzialen ondoriozko txanda-kontratuak enpresako jarduneko langileek estaltzeko prozedura bati loturik, akordio horren kopia.
- Lan-kontratuak txanda-hartzailearen urteko ordainsari gordina adierazita egon ezean, eta argitaratu gabeko enpresa-akordiorik badago, akordio horren kopia aurkeztu behar da.
- Organo eskudunaren ziurtagiria, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren epigrafea adierazten duena.
- Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren bigarren eta hirugarren sekzioetan adierazitako lanbide-jardueraren bat baldin bada dirulaguntza jasoko duen jarduera, zerga horren araudia betetzean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan (PFEZ) egiten den konturako atxikipenen zenbatekoa kenduko zaio dirulaguntzaren zenbatekoari, eta PFEZean jarduera hasierari dagokion konturako atxikipen-tasa ezartzeko (jardueraren hasierako zergaldian eta hurrengo bietan), eskatzaileak Lanbideri jakinarazi behar dio zer arrazoi dauden tasa hori ezartzeko. Hemen eskuragarri dagoen ereduaren arabera aurkeztu behar da jakinarazpen hori, izenpetuta: <https://euskadi.eus>

LAGUNTZA EMANDAKOAN AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA

- Enpresako langileria finakoaren egiaztagiriak, laguntza eman eta urtebetera egindakoa eta hasierako kontrataziotik hogei hilera egindakoa. Horretarako, Gizarte Segurantzaren dokumentu hau aurkeztu behar da: «altan diren langileen txostena - ALT» (RED sisteman eskuratua), enpresak EAEn dituen lantokietako kotizazio-kontuen kode guztietarako, laguntza ematen denetik 12 hilabetera eta errelebo kontratua egiten denetik 20 hilabetera, hurrenez hurren. Halakorik izan ezean, enpresak dituen kotizazio-kontuen kode guztietako langile guztien lan-bizitzaren txostenak aurkeztu beharko dira.
- Halakorik eginez gero, txanda-kontratua mugagabe bihurtu izanaren kopia.
- Aurkeztutako eskabidetik aldatzen den edozeren egiaztagiria (txanda-hartzailea, izendapena, egoitza edo beste alderdiren bat aldatuz gero).

Eskabide hau ebazteko eta jakinarazteko, gehienez sei hileko epea izango da, erregistro-sarreraren datatik aurrera; epe hori amaitutakoan, dirulaguntzaren eskabidea onartutzat hartuko da baldin eta esanbidezko ebazpena ematen ez bada.

INFORMAZIOA

945 16 06 01

945 18 13 00

www.lanbide.euskadi.eus